

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Nekazaritza Zuzendaritzako kontratazio mahaien lehendakaritza kontratazioa proposatzen duten zerbitzu edo administrazio unitateen titularren esku uztea

Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuaren 7. artikulua, Nekazaritza Zuzendaritzaren lizitazio prozesuetako kontratazio mahaien osaera arautzean, zuzendaritza unitate horren titularrari edo hark eskuordetutako pertsonari esleitzen dio haren lehendakaritza.

Kontratazio prozedurak izapidetzeko eta ebazteko eraginkortasun- eta arintasun-arrazoiak direla eta, organoen jardunean administrazio onaren irizpideekin bat etorritik eska baitaitezke, beharrezkoa da Nekazaritza Zuzendaritzako kontratazio mahaietako burutza eskuordetzea.

Horrenbestez, administrazioaren efikazia eta azkartasunaren mesedetan, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauan eta 14/2016 Foru Dekretuan ezarritako eskuordetze aukeren arabera, eta niri dagozkion eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Kontratazioa proposatzen duten zerbitzuen edo administrazio unitateen titularren esku uztea Nekazaritza Zuzendaritzako kontratazio mahaien burutza.

Bigarrena. Eskuordetze hori mugagabea izango da, lehenago ez bada errebokatzen edo goragokoak ez badu bereganatzen.

Hirugarrena. Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 18a

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA